

DONEZTEBE INGURUMEN ARETOA ERABILTZEAGATIK TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

XEDAPEN OROKORRAK ETA GAIA.

1. artikulua

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Araua betez, **DONEZTEBE INGURUMEN ARETOA, Ganben kokatua (hemendik aurrera txokoa)** erabiltzeagatiko tasa ezartzen du Derioko Udalak, Ordenantza Araupetzaileak aipatzen dituen pertsona fisikoek eta/edo juridikoek erabil dezaten.

APLIKAZIO EREMUA.

2. artikulua

1. Ordenantza hau Derioko udal mugarte osoan aplikatuko da.

ZERGA EGITATEA.

3. artikulua

Zerga-gaia da Ganben kokatuta dagoen txokoa erabiltzea aprobetxamendu berezian.

SUBJEKTU PASIBOA.

4. artikulua

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren 34 eta 35. artikulua betez, eta Ordenantza horren 3. artikuluari jarraiki udal jabari publikoaren aprobetxamendu berezian erabiltzeagatik, honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: Doneztebe gizarte-kultur instalazioaren erabilera arautzen duen Ordenantzak aipatzen dituen pertsona fisikoak zein juridikoak, eta zerbitzuak eskatzen dituztenean edo haien onura jasotzen dutenean.

2. Zergadunen ordezkotzat hatuko dira: bestelako pertsona fisikoak zein juridikoa, baldin eta aprobetxamenduaren onuradun badira.

ZERGA KUOTA.

5. artikulua

1.- Ondoko atalean dagoen tarifa aplikatuz finkatuko da zerga kuota.

2.- Tarifa:

Txokoaren erreserba egun osorako izango da, eta txokotik irten beharko da Ordenantza Araupetzaileak jartzen duen orduan:..... 100 €

ZORTZAPENA.

6. artikulua

1. Ordenantza Araupetzaileari jarraiki, txokoa erabiltzeko baimena ematean sortuko da zerga, eta berehala ordainduko da tasa tokia ez bada eskatu aurretik. Une horretan, gainera, erreserba egingo da Ordenantza Araupetzailearen arabera.

2.- Erreserba egiten denean 50 euroko bermea eskatu du Udalak, tokia eta bere elementuen berme gisa.

3.- Aprobetxamendu bereziz erabilerak jabari publikoa guztiz edo zatiz suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, ordaindutako bermea kendu ondoren, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta kasua balitz, premiamendu bidez eskatu ahal izango da.

4.- Erabilera eta aprobetxamendu bereziaren eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusi ez duten arrazoiengatik, dagokiona itzuliko zaio. Era berean, erabiltzaileak ez badu txokoa erabili eta horretarako justifikatutako arrazoiaren bat dagonean, tasa itzuliko zaio, baldin eta Udalak txokoaren erabilera esleitu ahal badio beste bati data bererako.

LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

7. artikulua

1.- Tokia erabiltzeko eskabide orria aurkeztu bezain laster, Udalak likidazioa egingo du Ordenantza Araupetzaileak ezartzen duen eran eta epean, eta onuradunak diruz ordainduko du Udal Bulegoetan.

ZERGA KUDEAKETA

8. artikulua

1. Ordenantza honetan arautzen diren tasa, likidatu, bildu eta ikuskaritzari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, bere Ordenantza Araupetzailean, Ordenantza Fiskal Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan jasotakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau 2014.ko martxoaren 25ko osoko bilkuran akordioz onartua izan dena, argitaratzen den biharamunetik indarrean izango da, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

Aurrekontuen Foru Arauek edo aplikazio zuzena duten bestelako arauak edo xedapenenek aldaketak ekarriko dituzte Ordenantza Fiskal honetan.